

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Behin betiko onestea lanpostu zerrendaren aldaketa

Erakunde honen 2021eko ekitaldirako lanpostu zerrenda aldatzearen espedientea jendarean jartzeko epea amaitu ondoren, zeinari udalbatzak, 2021eko uztailaren 20an balio osoz egindako osoko bilkuran, hasierako onespena eman baitzion eta abuztuaren 2ko ALHAOn argitaratu baitzen (86. zk.), ez denez inolako alegaziorik aurkeztu, aldaketa behin betiko onesten da.

Bat etorri Euskal Funtzio Publikoari buruzko 16/1989 Legearen 16. artikuluan ezarritakoarekin, eta 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan araututakoarekin, aldaketa hori osorik argitaratzen da.

1. Karrerako funtzionarioak.

1.1 Estaturako gaikuntzakoak:

- Eskala: idazkari-kontuhartzaileak.
- Plaza kopurua: 1.
- Taldea: A1-A2.
- Titulazioa: graduko unibertsitateko titulua edo baliokidea.
- Hizkuntza eskakizuna: 4.
- Derrigortasun data: datarik gabe.
- Egoera: aktiboan.
- Dedikazioa: osoa.
- Destino-osagarriaren maila: 26.
- Betetzeko sistema: lehiaketa.
- Berariazko osagarria: 21.253,26 euro.

1.2 Administrazio orokorrekoak:

A) Azpieskala: administrazio langileak.

- Lanpostuaren izena: administraria.
- Plaza kopurua: 1.
- Egoera: jardunean.
- Taldea: C1.
- Titulazioa: batxilergoa, Lanbide Heziketako erdi mailako heziketa zikloak eta haien baliokideak gainditzeagatik lortutako teknikari titulua.
- Hizkuntza eskakizuna: 2.
- Derrigortasun data: datarik gabe.
- Dedikazioa: osoa.

- Destino-osagarriaren maila: 14.
- Betetzeko sistema: lehiaketa.
- Berariazko osagarria: 19.157,88 euro.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, iragarki hau ALHAOn argitara ematen denetik aurrera.

Burgelu, 2021eko abuztuaren 24a

Alkate-lehendakaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA